

SERORAK EUSKAL HERRIAN: IKUSPEGIAK, HASTAPENETATIK DESAGERRARAZTERARTE (ANTZINATE BERANTIARRA - XVIII. MENDEA)

Tesiaren egilea: Mikel Martin Larrañaga Arregi

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia

Tesi-zuzendaria: Iñaki Bazán Díaz eta Alberto Angulo Morales

Tesiaren laburpena:

Tesiak funtsezko banaketa bat dauka ardatzean: ikuspegi diakronikoaren eta sinkronikoaren artean egiten dena. Lehenari dagozkion lehen bi atalak, hurrenez hurren, jatorriaren auziari eta Aro Berriaren bukaerara arte seroren aurka izan ziren jazarpenen jarraipenari eskainita daude. Lehenean, jatorria diakonesekin lotzen zuen hipotesiaren aurkako hipotesi bat plazaratzen da: horren arabera, seroren jatorria klausura hedatzen hasi aurreko mugimendu eremutar eta monastikoetan kokatuko litzateke. Bigarrenean, instituzioaren desagerrarazte-prozesuaren jarraipena egiten da, horren izaeraren eta inplikaturiko instituzioen balorazio berri batera helduz.

Hirugarren ataletik aurrera ikuspegi sinkronikoa nagusitzen da, eta ikerketa hertsiago kokatzen da Debagoieneko espazio konkretuan, lehenik, bailarako seroratzatza mota ezberdinak arakatuz. Hautagaien aukeraketetan inplikaturiko instituzioen eta ezartzen ziren eskakizunen koadro zabal eta askotarikoa azaltzen zaigu Debagoieneko espazio mugatuan, Euskal Herriko aniztasun izugarriaren erakusgarri.

Aktibitateen atalak datoz gero, beste funtsezko banaketa batekin: batetik tenpluetako lan eta aktibitateak, eta bestetik espazio laikokoak. Lehen atalean ikertzen dira seroren ohiko aktibitateak aipatu izan diren gehienak: tenpluak garbitzea, administrazioa, argiteria, ohial eta arropak artatzea, iragate-erritu ezberdinak, kanpaiak, eta limosnaren ingurukoak, hospizio eta ospitaleetako bestelako lanekin batera. Hainbatetan ikusten da seroren parte-hartzea eta boterea tradizionalki esleitu izan zaiena baino aski esanguratsuagoa izan zela.

Baina espazio laikoko aktibitateak dira seroren boterea nabarietan azaltzen dutenak, zeukaten autonomia ekonomikoa ongi baliatzen zutela erakutsiz. Lurren, abereen, ondasun higiezin eta bestelakoen salerosketa eta alokairuaren, eta ehungintza eta joskintza bezalako aktibitateen alloan, ekonomikoki garrantzitsuena zen eta orain arte ia zeharo oharkabean igaro izan den aktibitatea dugu aipagarri: mailegutza. Seroren zordunen espektro zabala eta zorren kopuruak eurak aski esanguratsuak dira zorren bitartez zeukaten botere handia ohartzeko. Botere adierazle garbia dugun beste aktibitate bat pertsona partikularren ondasunen administrazioa da (nahiz albazea, nahiz ahaldun gisa).

Hurrengo atalean serorek familian nahiz gizartearen baitan zeukaten eragin sozioekonomikoa ikertzen da, askotan, ezkontzak gauzatu edo familiaren ondasunak babesterako orduan erabakigarria izaten baitzen. Tenpluei nahiz erlijiosoei egindako dohaintzak ere aski garrantzitsuak izan ohi ziren.

Azken atala emakumezkoen espazio sakratuei dagokie, eta bertan serorek erlijioaren eta sineskeren hautematean zeukaten funtsezko papera azpimarratzen da. Ondorioetan, jasotako ikuspegi zabalean zeharreko ekarpenak eta hausnarketak batzen dira, honakoa nabarmenduz: Erdi Aroko nahiz Aro Berriko euskal gizarteetan, serorena zen emakume erlijiosoendako eredu nagusia eta sozialki onartuena, klausurapeko mojenaren aurretik.